

***ANOETA KIROLDEGIA – CIUDAD
DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.***

**2022KO ABENDUAREN 31EKO
URTEKO KONTU LABURTUAK KUDEAKETA TXOSTENA
ETA KONTU IKUSKARIEN TXOSTENAREKIN BATERA**

***ANOETA KIROLDEGIA – CIUDAD
DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.***

**URTEKO KONTU LABURTUEN KONTU IKUSKAPENENKO
TXOSTENA 2022KO ABENDUAREN 31N**

ANOETA KIROLDEGIA – CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.
sozietatearen akziodun bakarrari

Salbuespenekin iritzia

ANOETA KIROLDEGIA – CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A. ren (Sozietatea) urteko kontu laburtuak auditatu ditugu. Urteko kontu laburtu hauek, 2022ko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak eta memoriak (guztiak eredu laburtuan) osatzen dituzte.

Gure iritziz, *Salbuespenekin iritziaren oinarria* atalean deskribatutako gaiak izan ditzakeen eraginengatik izan ezik erantsitako urteko kontu laburtuek, arlo esanguratsu guztietan, 2022ko abenduaren 31n Sozietatearen ondarearen eta egoera finantziarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion informazio finantziarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2.a oharrean adierazten dena), bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta -arauekin.

Salbuespenekin iritziaren oinarria

Txosten honen datan ez dugu jaso saldoak baieztatzeko Real Sociedad de Fútbol, S.A.D.-ri bidalitako eskaeraren erantzunik, eta ezin izan dugu beste prozedura alternatibo batzuk aplikatuta beste ebidentzia osagarririk lortu. Beraz, ezin izan gara ase bezero horrek 2022ko abenduaren 31n zuen 903.226 euro eta 2021eko abenduaren 31n zuen 450.071 euro, arrazoizkotasunaz. Gure 2021eko urtearen kontu laburtuen ikuskaritzaren iritzia honi buruz salbuespen bat zuen.

Auditoretza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizuna, arau horien arabera, Urteko kontu laburtuen *Auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna* atalean zehazten da.

Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontu laburtuen auditoretzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), urteko kontuen auditoretzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontuen auditoretza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzaillearen arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun auditoretza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontu laburtuen auditoretzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontu laburtuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

Salbuespenekin iritziaren oinarria atalean deskribatutakoagatik izan ezik, auditoretza-txostenean jakinarazi beharko liratekeen esanguratsutzat hartu behar diren arrisku gehiago ez daudela zehaztu dugu.

Bestelako informazioa: kudeaketa-txostena

Bestelako informazioak 2022 ekitaldiko kudeaketa-txostena soilik biltzen du; beraz egitea administratzaileen erantzukizuna da eta ez dago urteko kontuen barne.

Urteko kontuei buruzko gure auditoretza-iritziak ez du kudeaketa-txostena kontuan hartzen. Gure erantzukizuna kudeaketa-txostena dela eta, Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren araudiaren arabera, hauxe da: kudeaketa-txostena eta urteko kontuak bat datozen aztertzea eta informatzea aipatutako urteko kontuen auditoretzan lortutako sozietatearen ezagupenean oinarrituz eta gainerako ebidentzia ezberdinik kontuan izan gabe. Halaber, gure erantzukizuna, kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena jarraitu beharreko araudiarekin bat datozen ebaluatzea eta informatzea da. Egindako lanean oinarrituz hutsegite esanguratsurik dagoela ondorioztatzen badugu, horren berri emateko beharra dugu.

Egindako lanean oinarrituz, aurreko paragrafoan deskribatutakoa, kudeaketa-txostenak biltzen duen informazioa 2022 ekitaldiko urteko kontuekin bat dator eta bere edukia eta aurkezpenak aplikagarria den araudia jarraitzen du.

Urteko kontu laburtuen inguruan, administratzaileen erantzukizuna

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontu laburtuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantziarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantziarioaren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik ez daukaten urteko kontu laburtuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen empresa bezala jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da

administratzaileek sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistik ez dagoenean.

Urteko kontu laburtuen auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu laburtuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen auditoretza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren araudia jarraituz egindako auditoretzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontu laburtuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada. Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren arautegia jarraituz egindako auditoretza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontu laburtuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurreragatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko baino altuago da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.
- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako auditoretza-ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean urteko kontu laburtuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, auditoretza-txosteneko datara arte lortutako auditoretza-

ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaera edo baldintzek, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.

- Urteko kontu laburtuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontu laburtuek transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoretzaren irismena eta egote datak, eta auditoretzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrollean antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere. Administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, egungo urteko kontu laburtuen auditoretzan adierazgarrienak direnak zehaztu ditugu, hauek izanik, ondorioz, gure ustez arriskurik garrantzitsuenak.

Arrisku hauek gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta legezko edo erregelamenduzko xedapenek gaia argitaratzea debekatzen ez badute.

CONSULTORES Y AUDITORES ALTER 1990, S.L.P.

(Kontu-ikuskarien Erregistro Ofizialean (ROAC) S-0826 zenbakiarekin inskribatutako sozietatea)



Juan José Trullós Lancho (12.562 zenbakia)

2023ko martxoaren 28a

***ANOETA KIROLDEGIA – CIUDAD
DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.***

**2022KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU
LABURTUAK KUDEAKETA TXOSTENAREKIN BATERA**



Anoeta Kiroldegia S.A.



ANOETA KIROLDEGIA - CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.
2022KO ETA 2021EKO ABENDUAREN 31KO EGOERA BALANTZEAK LABURTUTA (EUROAK)
(NOTAK 1, 2, 3 ETA 4)

AKTIBOA	NOTAK	2022	2021
A. AKTIBO EZ KORRONTEA		74.867.458	76.485.789
II. Ibilgetu materiala	5	26.507	234.608
III. Ondasun higiezinak inbertsioak	6	71.540.951	72.951.181
V. Epe luzerako finantza inbertsioak	7	3.300.000	3.300.000
B. AKTIBO KORRONTEA		4.214.039	4.037.754
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	8	3.833.237	3.345.366
1. Salmentengatik eta zerbitu emateengatik bezeroak		927.645	567.761
3. Bestelako zordunak		2.905.592	2.777.605
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak		380.802	692.388
AKTIBOA GUZTIRA		79.081.497	80.523.543
<hr/>			
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	NOTAK	2022	2021
A. ONDARE GARBIA		22.385.881	22.676.003
A.1 Funtis propioak	9	5.743.016	5.689.090
I. Kapitala		5.036.681	5.036.681
1. Kapital eskrituratua		5.036.681	5.036.681
II. Jaulkipen-prima		31	31
III. Erreserbak		3.875.911	3.875.911
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak		(3.223.533)	(3.095.040)
VII. Ekitaldiko emaitza		53.926	(128.493)
A. 3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	10	16.642.865	16.986.913
B. PASIBO EZ KORRONTEA		54.980.787	53.206.344
II. Epe luzerako zorrak		3.302.995	3.302.995
3. Epe luzerako bestelako zorrak		3.302.995	3.302.995
V. Epe luzerako aldizkakoketak	11	51.677.792	49.903.349
C. PASIBO KORRONTEA		1.714.829	4.641.196
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	12	640.327	3.566.694
1. Hornitzaileak		9.314	-
2. Bestelako hartzekodunak		631.013	3.566.694
VI. Epe laburreko aldizkakoketak	11	1.074.502	1.074.502
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		79.081.497	80.523.543



Anoeta Kiroldegia S.A.

ANOETA KIROLDEGIA - CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.

2022KO ETA 2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOZKION GALDU-IRABAZIEN KONTU LABURTUAK
(EUROAK)
(NOTAK 1, 2, 3 ETA 4)

	NOTAK	2022	2021
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak	14 a)	2.206.547	1.857.204
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	14 c)	(847.652)	(729.655)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	5 eta 6	(1.646.628)	(1.641.685)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena	10	393.189	385.643
12. Bestelako emaitzak	14 d)	(50.119)	-
A) USTIAPENeko EMAITZA		55.337	(128.493)
B) EMAITZA FINANTZARIOA		-	-
C) MOZKINEN AURREKO EMAITZA		55.337	(128.493)
17. Sozietateen gaineko zerga		(1.411)	-
D) EKITALDIKO EMAITZA		53.926	(128.493)

Donostian, 2023ko martxoaren 27an

Anoeta Kiroldedia S.A.

Anoeta pasealekua, 1 - Tel. - 943481875 - anoeta_kiroldedia@donostia.eus - www.donostia.eus
20014 Donostia / San Sebastián

**ANOETA KIROLDEGIA – CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.
UDAL SOZIETATEAREN MEMORIA LABURTUA ETA KUDEAKETA TXOSTENA**

2022ko abenduaren 31

Administrazio Kontseiluak formulatuak
2023ko martxoaren 27an



ANOETA KIROLDEGIA – CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, S.A.

2022ko ABENDUAREN 31n

AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA LABURTUA

(1) ENPRESAREN JARDUERA-

ANOETA KIROLDEGIA – CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, SA SOZIJATEAK (aurreranzkoan, Sozietatea), bere sorkuntza-estatutuak dioenez, Donostiako udalerrian dagoen Anoetako kirolguneko obrak eta zerbitzuak sustatzen eta kudeatzen ditu.

(2) URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK-

a) Irudi zehatza-

2022ko abenduaren 31n amaitu den urteko ekitaldiko urteko kontu laburtuak Sozietatearen kontabilitate-erregistroetatik eskuratu dira, eta Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren eta kontabilitateari buruzko nahitaezko lege-xedapenen arabera aurkezten dira. Hortaz, alderdi adierazgarri guztiei dagokienez, ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zehatza biltzen dute, baita egindako eragiketa eta ondare garbiarena ere. Horrez gain, hainbat birsailkapen dituzte, behar bezala aurkezteko.

Sozietateak, indarrean dagoen legedian ezarritako parametroak gainditzen ez dituenaz, eredu laburtuaren arabera aurkezten ditu urteko kontuak. Urteko kontu horiek biltzen dituzten kontabilitateko egoera eta dokumentuei buruz egindako erreferentzia oro horien eredu laburtuan egindakotzat hartu behar da.

2022ko apirilaren 28an onartu zituen Sozietatearen Ohiko Batzar Nagusiak 2021 ekitaldiko urteko kontuak.

Akziodunen Batzar Nagusiak 2022ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak oraindik onartu ez dituen arren, Sozietatearen Administrazioaleek ez dute urteko kontu horiek onartzearen ondorioz kontu horietan aldaketa garrantzitsurik gertatzea espero.



b) Kontabilitate-printzipioak-

Urteko kontu hauek lantzeko aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -arauak memoria honen 4. notan bildu dira. Ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate-printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek lantzeko.

c) Informazioa alderatzea-

Merkataritza-legeriarekin bat etorritz, Sozietatearen administratzaileek egoera-balantzearen kontu-sail bakoitzarekin, galdu-irabazien kontuarekin eta memoriarekin batera, itxitako ekitaldiko zifrak aurkezteaz gainera, aurreko urteko ekitaldikoak ere aurkeztu dituzte, alderatzeko.

d) Ziurgabetasuna balioesteko eta estimatzeko alderdi kritikoak eta kontabilitate-politiken aplikazioan irizpen esanguratsuak-

Sozietateak funtzionatzen ari den enpresaren printzipioaren arabera egin ditu 2020ko ekitaldiko urteko kontuak, hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa nabarmenak ekar ditzakeen arrisku esanguratsurik egon gabe.

(3) EMAITZAK APLIKATZEA-

2022ko emaitza banatzeari dagokionez, Administratzaileek honako proposamen hau egingo diote Akziodunen Batzar Nagusiari, batzar horrek onar dezan:

Kontzeptua	-Euroak-	
	2022	2021
Ekitaldiaren emaitz, erantsitako galdu-irabazien kontuaren arabera	53.926	(128.493)
Haei bana dakieke: Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboei	53.926	(128.493)
Totala	53.926	(128.493)



(4) ERREGISTRATZEKO ETA BALORATZEKO ARAUAK-

2022ko abenduaren 31ko urteko kontuak egiteko, Sozietateak honako erregistro- eta balioespen-arau hauek erabili ditu batik bat, betiere indarrean dagoen legediari jarraiki:

a) Ondasun higiezinetakoinbertsioak eta ibilgetu materiala-

“Ondasun higiezinetakoinbertsioak” errentak lortzeko Sozietateak dituen aktibo ez-korronteak, higiezinak direnak, biltzen ditu. Aktibo horiek erregistratu eta baloratzeko, ibilgetu materialerako irizpide berberak aplikatzen dira.

Ibilgetu materiala eta ondasun higiezinetakoinbertsioak beren eskuratzeko-kostuan baloratu dira, eta dagokien amortizazio metatuaz eta izan duten nariaduragatikogalerez garbi azaldu dira, betiere 11/1996 Foru Arauan xedatutakoaren arabera eguneratuta. Elementu bakoitza eskuratzeko ordaindutako prezioaz gain, kostuak gastu hauek ere biltzen ditu: eraikuntzaldian sortutako finantza-gastuak, aktiboa erosteari edo fabrikatzeari zuzenean egotz dakizkiokeenak, betiere erabiltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar badute. Ekitaldian ez da kontzeptu horrengatikozenbatekorik aktibatatu.

Elementu osoen ordezkapenak edo berritzeak eta xedezko ondasunaren balio-bizitza, produktibitatea edo ahalmen ekonomikoak areagotzeko handitze-, modernizazio- edo hobekuntza-kostuak ibilgetu materialaren zenbatekorik handien gisa kontabilizatzen dira. Hori dela-eta, ordezkaturako edo berritutako elementuak kontabilitatetik ateratzen dira. Mantentzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko aldizkako gastuak emaitzei egotzen zaizkie, sortzapen-printzipioari jarraiki, gastu horiek egin diren ekitaldiko kostu gisa.

Amortizazioa aktiboak eskuratzeko kostuaren gainean kalkulatu da, kostu horri aktibo horien hondar-balioa kenduta, betiere metodo lineala aplikatuz. Aktibo materialen amortizaziorako urteko zuzkidurak galdu-irabazien kontuan kontrapartida ezarriz egiten dira. Era berean, honako ehuneko hauek kontuan hartu eta aplikatu dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legeari jarraiki:

Eraikuntzak	% 3.
Altzariak eta tresneria.....	% 15.
Informazioa prozesatzeko ekipoa.....	% 25.

Aurrekotik salbuetsirik daude Anoetako estadioarekin zerikusia duten inbertsioak, birmoldaketa amaitu ondoren haien bizitza erabilgarria 2074. urtera arte luzatu dela kalkulatu baita; beraz, data horretara arte amortizatuko da.

Eskuratzeko erabiltzen hasten direnetik aurrera hasten dira amortizatzen.



Sozietatearen administratzaileen ustez, aktiboaren kontabilitate-balioak ez du gainditzen horien balio berreskuragarria.

Aktibo bat besterentzearen edo erretiratzearen ondoriozko mozkin edo galera salmentaren mozkinaren eta aktiboak liburuetan duen zenbatekoaren arteko kenduratzat kalkulatzen da, eta galdu-irabazien kontuan aitoritzen da.

b) Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzearen ondoriozko galerak-

Aktiboari narriatzearen ondoriozko galera-probak ezartzen zaizkie, betiere gertakizunen batek zirkunstantzia-aldaketaren batek kontabilitate-balioa agian ez dela berreskuratuko adierazten badu. Narriaduragatiko galera aktiboaren kontabilitate-balioak bere zenbateko berreskuragarriaren gainetik duen soberakinaren arabera hartzen da aintzat. Horri dagokionez, zenbateko berreskuragarritzat hartuko da aktiboaren arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak edo erabilera-balioa (bietatik handiena).

Aurreko ekitaldietan aktibo batean aintzat hartutako narriaduragatiko galerak itzuli egiten dira, beren zenbateko eskuragarriaren gaineko estimazioetan aldaketa izaten denean; hain zuzen ere, aktiboaren balioa gehitzen da, muga saneamendua egin ez balitz aktiboak liburuetan izango zukeen balioa izanik.

Ekitaldian, Sozietateak ez du inolako kontzepturik erregistratu aktiboaren balioaren narriadura gisa.

c) Errentamendu operatiboak-

Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentamenduan hartutako ondasunaren jabetza eta funtsean ondasun horri dagozkion arrisku eta abantaila guztiak errentatzaileari dagozkio.

2022ko abenduaren 31n, Sozietateak errentatzaile gisa baino ez ditu errentamendu-kontratuak.

Errentamenduak ekarritako diru-sarrerak galdu-irabazien kontura ordaintzen dira linealki, kontratuaren balio-bizitzaren arabera.

d) Finantza-tresnak-

a) Finantza-aktiboak –

Finantza-aktiboak, balorazioaren ondorioetarako, kategoria hauetakoren batean sailkatzen dira:



1) Kostu amortizatuko finantza-aktiboak

Finantza-aktibo bat kategoria honetan sartzen da, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta enpresak inbertsioari eusten badio —kontratua gauzatzearen ondoriozko eskudiru-fluxuak jasotzeko— eta finantza-aktiboaren kontratu-baldintzek eskudiru-fluxuak sortzen badituzte zehaztutako datetan —eskudiru-fluxu horiek soilik izango dira printzipalaren kobrantzak eta ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak—.

Ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko kobrantza nagusiak eta interesak baino ez diren kontratuko eskudiru-fluxuak, berez, mailegu arruntaren edo ohikoaren izaera duen akordio bati dagozkio. Edonola ere, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostu ahal izango da.

Oro har, kategoria honetan merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak sartzen dira (ondasun-salmentan eta enpresaren trafiko-eragiketen ondoriozko zerbitzugintzan sortzen diren finantza-aktiboak, kobrantza atzeratua dutenak), baita merkataritzakoak ez diren eragiketen ondoriozko kredituak ere, hau da, ondare-tresna eta eratorriak ez izan arren merkataritza-jatorriak ez dutenak eta zenbateko zehatza edo zehazgarria duten kobrantzak dituztenak, baldin eta enpresak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik badatoz. Hau da, kategoria horren barruan daude kobratu beharreko maileguak eta kontuak, baita mugaeguna finkatua duen zorraren balio adierazgarriak eta zenbatekoa zehatza edo zehazgarria duten kobrantzak ere, betiere merkatu aktibo batean negoziatzen direnean eta sozietateak horiek mugaegunera arte kontserbatzeko asmoa eta ahalmena duenean.

Hasiera batean, arrazoizko balioan gehi zuzenean atxiki dakizkiekeen transakzioaren kostuetan baloratuko dira. Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak, langileei emandako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnen gaineko ordainketak —horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero da— beren balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, baldin eta eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez bada.

Ondorengo balorazioa, beraz, kostu amortizatuan egiten da, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Dena dela, aurreko atalean xedatutakoari jarraituz, hasiera batean beren balio nominalaren arabera baloratzen diren eta urtebete baino gutxiagoko epemuga duten kredituak zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira, narriatu direnean izan ezik. Jaulkitzailearen finantza-zailtasunen ondorioz, finantza-aktibo baten kontratuzko eskudiru-fluxuak aldatzen direnean, enpresak aztertuko



du ea bidezkoa den balio-narriaduraren ondoriozko galera kontabilizatzea.

Kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta liburuetan erregistratuta dagoen balioaren artean dagoen diferentziaren ondoriozko narriadurak erregistratzen ditu sozietateak. Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, egiten dira beharrezkoak diren balorazio-zuzenketak, baldin eta kategoria horren barnean hartzen den finantza-aktibo baten balioa edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten batera baloratutako finantza-aktiboen talde baten balioa narriatu izanaren ebidentzia objektiboa badago, eta narriadura hori, hasierako aitormenaren ondoren, izandako gertaera baten edo gehiagoren ondorio izan bada eta gertaera horiek etorkizuneko eskudiru-fluxu zenbatetsietan murrizketa edo atzerapena eragiten badute, beharbada zordunaren kaudimen-gabeziaren ondorioz.

Finantza-aktibo horien balio-narriaduraren ondoriozko galera bi hauen arteko aldea da: batetik, liburuetan duten balioa eta, bestetik, zenbatespenen arabera sortuko dituzten etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa —barnean direla, hala badagokio, berme errealak eta pertsonalak gauzatzearen emaitzazkoak—. Hasierako aitormenaren unean kalkulaturako interes-tasa efektiboaren arabera deskontatuko dira.

Narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak eta horien itzulketa —baldin eta galera horren zenbatekoa ondorengo gertakizun batekin zerikusia duten arrazoiengatik murrizten bada— gastu edo diru-sarrera gisa aitortzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga da itzulketa-egunean aktiboak liburuetan aitortuta duen balioa, baldin eta balioaren narriadura erregistratu ez balitz.

Finantza-aktiboen baja-

Sozietateak finantza-aktiboari baja ematen die finantza-aktiboko eskudiru-fluxuen gaineko eskubideak iraungitzen direnean edo laga direnean, eta horien jabetzaren berezko arriskuak eta etekinak funtsean transferitu direnean. Kobratu beharreko kontuak sortzen dira, oro har, kaudimengabeziako eta berandutzako arriskuak transmititu badira.

Finantza-aktiboari baja ematen zaionean, transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboak liburuetan duen balioaren arteko diferentziak, gehi zuzenean ondare garbian aitortutako zenbateko metatuak, zehazten dute aktibo hori baja ematean sortutako irabazia edo galera, aktibo hori gertatzen den ekitaldiko emaitzaren parte baita.

Aitzitik, Sozietateak ez die finantza-aktiboari baja ematen, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko finantza-pasiboa aitortzen du,



bere jabetzaren berezko arriskuak eta etekinak funtsean atxikitzen dituzten finantza-aktiboen lagapenetan.

Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak-

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honetan erregistratzen dira kutzako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko eta hiru hilabetetik beherako epemugako epe laburrerako beste inbertsio batzuk, kutxan bizkor gauza daitezkeenak eta balioa aldatzeko arriskurik ez dutenak.

b) Finantza-pasiboak:

Finantza-pasiboak, balorazioaren ondorioetarako, kategoria hauetakoren batean sailkatzen dira:

1) Kostu amortizatuko finantza-pasiboak

Kategoria honen barruan finantza-pasibo guztiak sailkatzen dira, galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituztenean eta arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik. Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ondoriozko zorrak.

Mailegu arrunt edo ohiko baten ezaugarriak dituzten partaidetza-maileguak ere kategoria horretan sartuko dira, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostearen kalterik gabe.

Hasiera batean, arrazoizko balioan baloratzen dira. Kontrako ebidentziarik ezean, arrazoizko balioa transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren baliokidea, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera doituta. Nolanahi ere, gehienez urtebeteko mugaeguna duten eta kontratuko interes-tasa ez duten merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak eta hirugarrenek partaidetzen ganean eskatutako ordaintzak —horien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero da— balio nominalaren arabera baloratuko dira, betiere eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez denean.

Aurreragoko balorazioa amortizatutako kostuan egiten da. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Dena dela, aurreko atalean xedatutakoari jarraituz, hasiera batean beren balio nominalaren arabera baloratzen diren eta urtebete baino gutxiagoko epemuga duten zorrak zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira.



Finantza pasiboen baja-

Enpresak finantza-pasibo bati edo haren zati bati baja emango dio betebeharra iraungi denean, hau da, ordaindu, ezeztatu edo iraungi denean.

Emandako eta jasotako fidantzak-

Obligazio jakin batzuen berme gisa eraturako gordailuak edo fidantzak benetan ordaindutako zenbatekoan baloratzen dira, arrazoizko balioetik nabarmen aldentzen ez den zenbatekoan.

Errentamendu operatiboen ondorioz edo zerbitzugintzen ondorioz emandako edo jasotako fidantzetan, arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea hartzen da errentamenduagatik edo zerbitzugintzagatik aldez aurretik egindako ordainketatzat edo kobrantzatzat, eta, errentamendu-aldian edo zerbitzua egiten den aldian, galdu-irabazien kontuari egozten zaio, betiere salmenten eta zerbitzugintzen ondoriozko diru-sarrerei buruzko arauaren arabera.

Fidantzen arrazoizko balioa zenbatestean, geratzen den alditzat hartzen da hitzartutako gutxieneko kontratu-epea; aldi horretan ezin da zenbatekoa itzuli, itzulketaren portaera estatistikoa kontuan hartu gabe. Epe laburrerako finantza denean, ez da zertan eskudiru-fluxurik deskontatu, baldin eta ondorioa adierazgarria ez bada.

e) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak-

Itzulgarriak diren diru-laguntzak pasibo gisa erregistratzen dira, ez-itzulgarri bihurtu arte. Bestalde, itzulgarriak ez diren diru-laguntzetarako, Sozietateak honako irizpide hauei jarraiki jarduten du:

1. Kapitaleko diru-laguntza ez-itzulgarriak:

Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrera gisa erregistratzen dira, zerga-efektua kendu ondoren emandako zenbatekoaz. Haien hasierako erregistroa egiten da, emakidaren jakinarazpena jasotakoan, diru-laguntza emateko ebazpen indibidualetan ezarritako baldintzak betetzeari buruzko zentzuzko zalantzarik ez dagoela erabakitzen den unean.

Hasierako aitorpenean, Sozietateak, batetik, jasotako ondasunak edo zerbitzuak aktibo gisa erregistratzen ditu eta, bestetik, dagokion gehikuntza ondare garbian. Erregistratzen diren egunetik aurrera, kapitaleko diru-laguntzak emaitzei egozten zaizkie, haiekin finantzaturako aktiboengatik aldian izandako balio-galeraren proportzioan, betiere balio galerarik izan ez dezaketen aktiboak ez badira; kasu horretan, haien inbentarioan baja edo besterentzea egiten den ekitaldiaren emaitzari egotziko zaizkio.



2. Ustiatzeko diru-laguntzak:

Emaitzetan ordaintzen dira emakidaren unean.

f) Saldoak korrante eta ez-korrante gisa sailkatzea-

Erantsitako egoera-balantzean, saldoak ez-korrante eta korrante gisa sailkatu dira. Saldo korrante gisa sailkatu dira Sozietateak ustiapen-ziklo normalean saldu, kontsumitu, ordaindu edo gauzatzea espero dituen saldoak. Sailkapen horrekin bat ez datozenak, berriz ez-korrontetzat hartu dira.

g) Mozkinen gaineko zerga-

2022ko ekitaldirako Sozietateen gaineko Zerga Gipuzkoako Lurralde Historiko Foru Arauaren arabera kalkulatu da — urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa—.

Ekitaldi bakoitzeko sozietateen gaineko zergagatiko gastua zerga-aurreko emaitza ekonomikoaren arabera kalkulatzen da, dagokionaren arabera zerga-emaitzarekiko alde iraunkorrez gehitua edo murriztua. Horri dagokionez, adierazitako zergaren zerga-oinarria hartuko da zerga-emaitzatzat.

Inbertsioengatiko kenkariari dagokion zerga-mozkina ekitaldi bakoitzeko Sozietateen gaineko Zergaren zenbateko txikientzat hartzen da.

h) Sarrerak eta gastuak-

Sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira.

Kobratutako edo kobratu beharreko kontraprestazioaren zentzuzko balioan kalkulatu dira sarrerak, eta jardueraren esparru arruntean egindako zerbitzuengatik kobratu beharreko zenbatekoak dira, deskontuak kenduta.

Gastuak galdu-irabazien kontuan aitortuko dira, baldin eta modu fidagarrian neur daitekeen aktibo baten murrizketarekin edo pasibo baten gehikuntzarekin lotzen diren etorkizuneko mozkin ekonomikoetan murrizketa gertatzen bada. Horrek esan nahi du gastua pasiboaren gehikuntza edo aktiboaren murrizketa erregistratzearekin batera erregistratzen dela.

Gastu bat berehala aitortzen da ordainketa batek etorkizunean mozkin ekonomikorik sortzen ez duenean edo aktibo gisa erregistratzeko behar diren baldintzak betetzen ez dituenean. Era berean, gastua aintzat hartzen da pasiboa gertatzen denean eta aktiborik erregistratzen ez denean.



i) Kaleratzeagatiko kalte-ordainak-

Indarrean dagoen lan-araudiari jarraiki, Sozietatea behartuta dago baldintza jakin batzuetan bere lan-harremanak eteten dizkien enplegatuei kalte-ordainak ordaintzera. Ez dago kontzeptu horretarako hornidura kontabilizatzeko premia sortzen duen arrazoizko objektiborik.

j) Erlazionatutako enpresen arteko eragiketak-

Oro har, erlazionatutako enpresen arteko eragiketak arrazoizko balioan erregistratzen dira hasieran. Hala badagokio, hitzartutako prezioa arrazoizko balioetik desberdina bada, aldea eragiketaren errealitate ekonomikoaren arabera erregistratzen da. Ondorengo balorazioa dagokion araudian xedatutakoaren arabera egiten da.

Ondorio hauetarako, erlazionatutako entitate bezala hartzen da Donostiako Udala (5., 6. 9. eta 10. notak).

k) Ingurumenean eragina duten enpresa-jardunak-

Ibilgetuko inbertsioztat hartuko dira sozietatearen jarduera arruntak ingurumenean sortzen dituen eraginak ezabatu, mugatu edo kontrolatzera bideratutako sistema, ekipo eta instalazioak erosteko izandako gastuak. Ingurumenarekin zerikusia duten gainerako gastuak, ibilgetu-elementuak eskuratzeko egin ez direnak, ekitaldiko gastutzat hartuko dira.

Ingurumenari loturik izan litezkeen kontingentziei dagokienez, harpidetutako polizen bidez kontingentzia horiek behar adina estalita daudela irizten zaio.

(5) IBILGETU MATERIALA-

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan honako mugimendu hauek erregistratu dira ibilgetu honetako kontuetan:



Mugimenduak	- Euroak -			
	Lursailak eta eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta bestaleko ibilgetuak	Aribideko ibilgetua eta aurrerakinak	Guztira
A) 2021 ekitaldiaren hasierako saldoa	70.024	73.391	-	143.415
Adizioak	-	-	2.749.879	2.749.879
Traspasoak	-	-	(2.527.097)	(2.527.097)
B) 2021 ekitaldiaren amaierako saldoa	70.024	73.391	222.782	366.197
C) 2022 ekitaldiaren hasierako saldoa	70.024	73.391	222.782	366.197
Adizioak	-	-	28.297	28.297
Traspasoak	-	-	(236.180)	(236.180)
D) 2022 ekitaldiaren amaierako saldoa	70.024	73.391	14.899	158.314
E) Amortizazio metatua, 2021 ekitaldiko hasierako saldoa	58.397	72.970	-	131.367
Ekitaldiko zuzkidura	222	-	-	222
F) Amortizazio metatua, 2021 ekitaldiko amaierako saldoa	58.619	72.970	-	131.589
G) Amortizazio metatua, 2022 ekitaldiko hasierako saldoa	58.619	72.970	-	131.589
Ekitaldiko zuzkidura	218	-	-	218
H) Amortizazio metatua, 2022 ekitaldiko amaierako saldoa	58.837	72.970	-	131.807
2022 ekitaldiko amaierako garbia	11.187	421	14.899	26.507

Aurreko koadroan jasotzen diren elementuen zati bat Donostiako Udalaren diru-laguntzekin finantzatu da (9. eta 10. notak).

Anoeta estadioa birmoldatzeko eta Yoldi igerilekuetan gimnasioa berritzeko egin diren lanei dagozkie gehikuntzak. Ekitaldiaren amaieran, sozietateak birsailkatu egin ditu egindako inbertsioak, haien izaera ekonomikoaren arabera (6. oharra).

Epigrafe honetan guztiz amortizatutako elementuen zenbatekoa 72.896 euro da, eta "Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala" kontuan bilduta daude.

(6) ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK -

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan honako mugimendu hauek erregistratu dira ibilgetu honetako kontuetan:



Mugimenduak	- Euroak -		
	Lursailak eta eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetuak	Guztira
A) 2021 ekitaldiaren hasierako saldoa	100.138.718	125.609	100.264.327
Traspasoak	2.527.097	-	2.527.097
B) 2021 ekitaldiaren amaierako saldoa	102.665.815	125.609	102.791.424
C) 2022 ekitaldiaren hasierako saldoa	102.665.815	125.609	102.791.424
Traspasoak	236.180	-	236.180
D) 2022 ekitaldiaren amaierako saldoa	102.901.995	125.609	103.027.604
E) Amortizazio metatua, 2021 ekitaldiko hasierako saldoa	28.073.171	125.609	28.198.780
Ekitaldiko zuzkidura	1.641.463	-	1.641.463
F) Amortizazio metatua, 2021 ekitaldiko amaierako saldoa	29.714.634	125.609	29.840.243
G) Amortizazio metatua, 2022 ekitaldiko hasierako saldoa	29.714.634	125.609	29.840.243
Ekitaldiko zuzkidura	1.646.410	-	1.646.410
H) Amortizazio metatua, 2022 ekitaldiko amaierako saldoa	31.361.044	125.609	31.486.653
2022 ekitaldiko amaierako garbia	71.540.951	-	71.540.951

Aurreko koadroan jasotzen diren elementuen zati bat Donostiako Udalaren diru-laguntzekin finantzatu da (9. eta 10. notak).

Ibilgetu Materialean bezala, aurreko koadroaren ateratzeak estadioaren obregatik eratorritako bajei dagokie (5. nota).

Epigrafe honetan guztiz amortizatutako elementuen zenbatekoa 125.609 euro da, eta "Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala" kontuan bilduta daude.

Elkartearen aurkako demanda jarri dute honako hauek: "Anoeta Zelaia Obra Zibila Enpresen Aldi Baterako Batasuna Maiatzaren 26ko 18/1982 Legea", "Anoeta Zelaia Ingurutzaila Enpresen Aldi Baterako Batasuna Maiatzaren 26ko 18/1982 Legea" eta "Anoeta Erreforma Lokalak Enpresen Aldi Baterako Batasuna Maiatzaren 26ko 18/1982 Legea" eta hauen bazkideek, "CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.", "ALTUNA Y URIA, S.A.", 389.806,50 €-ko printzipalaren ordainketa eta 2021eko irailaren 22ra arte sortutako 42.047,92 €-ko berandutze-interesaren ordainketa erreklamatzeko, eta ordaindu arte sorraraz daitezkeenak ordaintzeko.

Printzipalaren jatorria honako hauek izango lirateke: Sozietateak lan-arloko demandatzaileei ezarritako zigorrak (61.945 euro) eta Ernest Lluch Kultur Etxean eman behar ziren kultura-tailerrak birkokatzeak eragindako gastuak (21.117 euro), eta Kirol Etxean gertatutako ezbeharrak eragindako gastuengatik eskatzaileei egindako behin-behineko atxikipena (306.744 euro).

Lehenengo bi kontuei dagokienez, Sozietateak ez du uste inongo zenbatekori aurre egin behar dionik; beraz, ez du hornidurarik erregistratu.



Ezbeharrak Kirol Etxean egindako atxikipenari dagokionez, Sozietateak, aseguratzaileak egindako txostenean oinarrituta, 141.881 euroko pasiboa erregistratu zuen 2021eko ekitaldian, eta zenbateko hori itzuli du, Donostiako Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko Epaitegian gordailu gisa gordetzen dena ordaintzeko prest, 2023ko maiatzaren 12an egingo den epaiketaren zain.

(7) EPE LUZERAKO FINANTZA INBERTSIOAK-

Epigrafe honen saldoa bat dator Eusko Jaurlaritzak Anoeta estadioa eta ondoko miniestadioa birmoldatzeko lanak finantzatzeko egin behar duen azken ekarpenarekin, erakunde horrekin 2016ko azaroaren 15ean sinatutako hitzarmenaren arabera. Sozietateak uste du hitzarmen horretan hitzartutako betebeharrak guztiak ez direla 2024ko abenduaren 31 baino lehen beteko; beraz, saldo hori honekin batera doan balantze laburtuko aktibo ez-korrontean erregistratu du.

(8) MERKATARITZA ZORDUNAK ETA KOBURATU BEHARREKO BESTE ZENBAIT KONTU-

Egoera-balantzearen epigrafe honetan, adierazitako datan koburatu beharreko zenbatekoak biltzen dira funtsean. Zenbateko horiek Sozietateak emandako hainbat zerbitzuri dagozkie.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n honela osatuta dago:

Kontzeptua	-Euroak-	
	Zenbatekoa 31/12/22	Zenbatekoa 31/12/21
Salmenten eta zerbitzu emateen onderiozko bezeroak	927.645	567.761
Errealaren aurrerapenak	2.848.945	2.525.171
Beste zenbait zordun	7.507	897
Ogasuna dirulaguntengatik zordun	49.140	251.537
Zor kobragaitza duten zordunak	33.019	33.019
Kaudimen-gabeziatarako hornidura	(33.019)	(33.019)
Guztira	3.833.237	3.345.366

(9) FUNTS PROPIOAK-

2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldian honako mugimendu hauek erregistratu dira erantsitako balantzearen epigrafe honetan:



Kontzeptua	-Euroak-					
	Kapital Eskrituratua	Jaulkipen Prima	Erreserbak	Aurreko Ekit. Emaidzak	Bazkideen aportazioak	Ekitaldiko Emaidza
21.12.31n saldoa	5.036.681	31	3.875.911	(3.095.040)	-	(128.493)
2021eko emaitzaren aplikazioa -	-	-	-	(128.493)	-	128.493
2022ko ekitaldiaren emaitza	-	-	-	-	-	53.926
22.12.31n saldoa	5.036.681	31	3.875.911	(3.223.533)	-	53.926

a) Kapital Soziala-

2022ko abenduaren 31n, Anoeta Kiroldegia – Ciudad Deportiva de Anoeta, SA sozietatearen kapital soziala 83.805 akzio izendunei dagokie, eta horietako bakoitzak 60,10 euroko balio izenduna du. Kapital sozial hori guztiz harpidetuta eta ordainduta dago. Donostiako Udala da kapital sozialaren % 100aren jabea (5., 6. eta 10. notak).

b) Balio-handitze erreserba-

Erreserba hauek ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinak inbertsioen balioa eguneratzeko eragiketen —horri buruzko araudiari jarraiki eginak— ondorio dira.

*11/1996 Foru Araudiaren eguneraketa

Eguneratzeko eragiketak Ogasun Ikuskaritzak 2001eko abenduaren 31z geroztik isilbidez onartutakotzat ematen dira.

Saldoa kontabilitate-emaitza negatiboak ezabatzeraz, kapital soziala gehitzera edo erreserba ez-banagarrietara bideratu ahal izango da.

c) Beste zenbait erreserba-

Erreserba horiek 67 euroko zenbatekoa dute, eta kapitala eurora doitzeagatik aldeei esleitutakoak biltzen dituzte.

(10) JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK-

Atxikitako 2022ko abenduaren 31ko egoera-balantzeko ondare garbiko epigrafean bildutako saldoa honela lortu da: hainbat erakunde publikok ekitaldi honetan eta aurrekoetan emandako kapitaleko diru laguntza guztien eta, diru laguntza horiekin



finantzatutako inbertsio-ondasunei egindako amortizazioen arabera, dagokien galdu-irabazien kontuetara transferitutako zenbatekoen guztizkoaren arteko kendura eginez.

Erantsitako 2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko egoera-balantzeen epigrafe honetan erregistratutako mugimenduak honako hauek dira:

Mugimenduak	-Euroak-
	Kapitaleko diru laguntzak
2021 ekitaldiaren hasierako saldoa	13.821.019
Adizioak	3.551.537
Ateratzeak	(385.643)
2021 ekitaldiaren amaierako saldoa	16.986.913
2022 ekitaldiaren hasierako saldoa	16.986.913
Adizioak	49.141
Ateratzeak	(393.189)
2022 ekitaldiaren amaierako saldoa	16.642.865

Diru laguntzen jatorriari dagokionez, 2022ko ekitaldiko mugimenduak honako hauek izan dira:

Mugimenduak	-Euroak-			Amaierako saldoa
	Hasierako saldoa	Adizioak	Traspasos	
Donostiako Udala	1.685.495	49.141	(75.535)	1.659.101
Eusko Jauriritza	10.051.517	-	(193.211)	9.858.306
Gipuzkoako Foru Aldundia	5.055.429	-	(120.774)	4.934.655
Kirral Kontseilu Gorena	194.472	-	(3.669)	190.803
Guztira	16.986.913	49.141	(393.189)	16.642.865

Traspasoak ekitaldiaren emaitzarekiko egozpenei dagozkie eta islatuta daude 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietako galdu-irabazien kontuetako "Finantzaz bestelako ibilgetuko diru-laguntzen eta beste batzuen egozpena" epigrafeetan.

(11) EPE LUZERAKO ETA EPE LABURRERAKO PERIODOKATZEAK-

Erantsitako 2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko egoera-balantzeetako pasibo ez-korrontearen eta korrontearen epigrafe hauetan Sozietatearen eraikinen erabilera-



lagapenen onuradunengandik jasotako kontraprestazioen egotzi gabeko saldoak bildu dira.

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, honako mugimendu hauek erregistratu dira epigrafe hauetan:

Mugimenduak	-Euroak-	
	Epe luzerako periodokatzeak	Epe laburrerako periodokatzeak
2021 ekitaldiaren hasierako saldoa	49.536.832	122.252
Adizioak	2.393.269	-
Ateratzeak	-	(1.074.502)
Traspasoak	(2.026.752)	2.026.752
2021 ekitaldiaren amaierako saldoa	49.903.349	1.074.502
2022 ekitaldiaren hasierako saldoa	49.903.349	1.074.502
Adizioak	2.848.945	-
Ateratzeak	-	(1.074.502)
Traspasoak	(1.074.502)	1.074.502
2022 ekitaldiaren amaierako saldoa	51.677.792	1.074.502

Honako hau da 2022ko ekitaldiko mugimenduei buruzko xehetasuna:

Mugimenduak	-Euroak-				
	Hasierako saldoa	Adizioak	Ateratzeak	Traspasoak	Amaierako saldoa
Epe luzerako periodokatzeak					
Real Sociedad - Estadioa	49.353.566	-	-	(1.027.377)	48.326.189
Real Sociedad - Miniestadioa	-	2.848.945	-	-	2.848.945
Real Sociedad - Bulegoak	45.080	-	-	(3.756)	41.324
Gipuzkoako Foru Aldundia	504.703	-	-	(43.369)	461.334
Guztira, epe luzera	49.903.349	2.848.945	-	(1.074.502)	51.677.792
Epe laburrerako periodokatzeak					
Real Sociedad - Estadioa	1.027.377	-	(1.027.377)	1.027.377	1.027.377
Real Sociedad - Bulegoak	3.756	-	(3.756)	3.756	3.756
Gipuzkoako Foru Aldundia	43.369	-	(43.369)	43.369	43.369
Guztira, epe laburrera	1.074.502	-	(1.074.502)	1.074.502	1.074.502

Hauek dira onuradunen zerrenda, ukitutako instalazioak eta aipatutako erabilera lagapenengatik 1993an 40 urtez ordaindutako zenbatekoak:

- Real Sociedad de Fútbol, SAD: 3.005.060,52 euro Anoetako Estadioa lagatzeagatik eta 150.253,03 euro bulegoak lagatzeagatik.



- Gipuzkoako Foru Aldundia: 1.734.763,62 euro Gipuzkoako Kirol Federakuntzek erabiltzen dituzten instalazioak lagatzeagatik.

Real Sociedad de Fútbol, SAdek egindako ekarpen berriak Sozietatea eta esandako entitatearen arteko 2016ko irailaren 1ean sinatutako Anoetako Estadioa Birmoldatzeko Hitzarmenean kokatzen dira. Aipatutako hitzarmenaren bigarren klausularen arabera Real Sociedad de Fútbol, SAdek birmoldatzeen kostuaren %50a aportatu behar zituen. Kontzeptu horren ekarpena, Miniestadioaren birmoldatzeari dagokionez 2.848.945 euroren %50era mugatzen da, oinarriko proiektuan kalkulaturako kostura, alegia.

Halaber, esandako klausulak ezartzen zuen Real Sociedad de Fútbol, SAdek gainerako kantitatea emango ziola Sozietateari Estadioa eta Miniestadioa birmoldatzeko obra guztien behin betiko guztiko kostua osatu arte, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenak deskontatuta, ekarpen horietatik Kirol Etxera, Kultur Etxera eta Gipuzkoako Futbol Federaziora bideratutako kantitateak kendutakoan.

Estadioaren ekarpen horiek 50.469.242 eurokoak izan dira 2021eko abenduaren 31n, eta kanon gisa egin dira, 2033ko abuztuaren 5ean amaitzen den Anoeta estadioa erabili eta ustiatzeko egungo lankidetzaz-hitzarmenaren indarraldia amaitzen denetik kontatzen hasita. Hasierako epe berria 2074ko otsailaren 5era arte ezarri da. Hala ere, ezarritako kanonaren arabera egokitu beharko da (702.677,68 €), sozietateak beste betebeharrak baditu estadioa birmoldatzeko obraren ondorioz.

Ateratzeak ekitaldiaren emaitzarekiko egozpenei dagozkien eta erantsitako 2022ko eta 2021eko abenduaren 31an amaitutako urteko ekitaldietako galdu-irabazien kontuetako "Bestelako ustiapen-sarrerak" epigrafeetan islatu dira.

(12) MERKATARITZA HARTZEKODUNAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK-

Honako hau da 2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko egoera-balantzeen epigrafe honetako saldoen osiera:

Kontzeptua	-Euroak-	
	Zenbatekoa 2022/12/31	Zenbatekoa 2021/12/31
Hornitzaileak	9.314	-
Beste hornitzaileak	202.657	263.717
Zerga pasibo arruntak	1.411	-
Ogasun Publikoa, hainbat kontzeptugatiko zordun	26.945	267.977
Bezeroen aurrerakinak	400.000	3.035.000
Total	640.327	3.566.694



Bezereen aurrerakinen kontuaren saldoa bat dator Donostiako Udalak, Sozietateko Bazkide Bakarrak, emandako aurrerakin itzulgarriekin, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaren zain dagoen kobrantzak eta Realari egin beharreko fakturazioak eragindako likidezia-falta arintzeko. Eusko Jaurlaritzari dagokion zatia erantsitako balantze laburtuko pasibo ez-korrontean sailkatu da, kobratu beharreko kontuari emandako sailkapenarekin bat etoriz (7. oharra).

(13) EGOERA FISKALA-

Sozietateen gaineko Zerga onartu ohi diren kontabilitate-printzipioak aplikatuta lortzen den emaitza ekonomikoan edo kontabilitate-emaitzan oinarrituta kalkulatzen da. Ez du zertan bat etorri emaitza fiskalarekin, hau da, zergaren zerga-oinarriarekin.

2022 ekitaldiko kontabilitate-emaitza, funtsean, bat dator Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarriarekin.

Sozietateak aurreko ekitaldietako konpentsatu gabeko zerga-oinarri negatiboak ditu, eta horien zenbatekoa 4.191,9 mila euro da. Zerga-oinarri negatibo horiek etorkizunean konpentsatu ahal izango dira, hain zuzen ere sortu ziren ekitaldiaren ondorengo 30 urteetan itxitako ekitaldietan sortutako zerga-oinarri positiboek. Sozietatearen izaeraren eta jardunaren arabera, ez da aurreikusten konpentsatu gabe dauden zerga-oinarri negatiboak etorkizunean behar bezala xurgatzea. Hortaz, Sozietateak ez du erregistratu kontzeptu horrengatik kreditu fiskal erabilgarria.

Honako hau da 2022ko abenduaren 31n konpentsatu gabe zeuden zerga-oinarri negatibo horien xehetasuna:

Urtea	Milako eurotan	Azken aplikazio-urtea
2004	82,1	2034
2005	200,8	2035
2006	246,6	2036
2007	336,1	2037
2008	204,5	2038
2009	121,1	2039
2010	90,8	2040
2011	116,2	2041
2012	111,2	2042
2013	104,1	2043
2014	25,8	2044
2016	18,9	2046
2017	593,4	2047
2018	1.076,9	2048
2019	423,2	2049
2020	283,9	2050
2021	128,5	2051
GUZTIRA	4.164,2	



Indarrean dauden legezko xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat jo agintaritzak fiskalak ikuskatzen ez dituen arte edo preskripzio-epaia amaitzen ez den arte. Sozietateak azken lau ekitaldiak zerga-arloko agintariek ikuskatzeko irekita ditu, bere jardueraren ondoriozko dagozkion zerga guztietarako.

Sozietatearen administratzaileen iritziz, urteko kontuetan, oro har, ez dago ikuskapenera irekita dauden ekitaldiak berraztertzea ekartzeko moduko eragin adierazgarria duen kontingentziarik.

Sozietateak azken lau urteak irekita ditu bere jardura dela eta zergak ikuskatzeko.

Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren preskripzioari dagokionez, zenbateko hori berriro zenbatzen hasi zen 2020ko maiatzaren 8an 2015, 2016, 2017, 2018 eta 2019 ekitaldietarako, Sozietateak ekitaldi horien gainean Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztutako erregularizazioa dela eta, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 7.8. artikuluan izandako aldaketan ondorioz.

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, haren zenbaketa berriro hasi zen 2020ko uztailaren 24an, 2014, 2015, 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietarako, Sozietateak ekitaldi horien gainean Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztutako erregularizazioa dela eta; izan ere, zerbitzu publikoak ematek eratorritako errentak ez integratzeari buruzko interpretazio-irizpidea aldatu zen, 2/2014 Foru Arauaren 39.1 artikuluan aurreikusia.

(14) SARRERAK ETA GASTUAK-

a) Bestelako ustiapen-sarrerak-

Honako hau da 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldien dagokion galdu-irabazien kontuko epigrafe honen xehetasuna, kontzeptuaren arabera:

Kontzeptua	-Euroak-	
	Zenbatekoa 2022/12/31	Zenbatekoa 2021/12/31
Eraikinen errentamenduaren ondoriozko sarrerak	1.365.678	1.346.079
Telefonia-errepikagailuak	20.161	11.344
Gastu-jasanarazpenak	820.708	499.781
Guztira	2.206.547	1.857.204

2022ko abenduaren 31n, Sozietateak honako kuota hauek ditu kontratatuta errentariek, orain indarrean dauden kontratuen arabera eta gastu arrunten



jasanarazpenik, KPIren ondoriozko gehikuntzarik eta kontratu bidez hitzartutako errenten etorkizuneko eguneratzerik kontuan izan gabe:

- Eurotan -	
Errentamendu operatiboan gutxieneko kuotak	Zenbatekoa
2022n	300.883
2023-2026 aldian	1.203.529
2026tik aurrera	1.473.952
GUZTIRA	2.978.364

b) Batez besteko plantilla-

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, batez besteko enplegatuen kopurua zero izan da, bi urteetan.

c) Bestelako ustiapen-gastuak-

Honako hau da 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldien dagozkion galdu-irabazien kontuetako epigrafe honen xehetasuna, kontzeptuaren arabera:

Konzeptua	-Euroak-	
	2022/12/31	2021/12/31
Kanpoko zerbitzuak	795.441	570.215
Zergak	52.211	159.440
Guztira	847.652	729.655

Kontu-ikuskatzaileak egindako enpresa-zerbitzuen kontzeptu guztiengatik 2022 eta 2021eko ekitaldietan ordaindutako ordainsarien zenbatekoa 3.300 eurokoa da, bi kasuetan.

d) Beste emaitzak-

Galdu-irabazien kontuen epigrafe honen xehetasuna 2022ko maiatzaren 15ean gertatutako ur uholdeen ondorioz Sozietatearen instalazioetan izandako kalteek eragindako gastuei dagokie ia osorik. Gertaeraren ostean, aseguru-etxeari jakinarazi zioten, eta aditu bat bidali zuen kalteen berri ematera. Sortutako kalteen zati bat Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko du.



Aseguru etxearen kalte-ordainari dagokionez, proposamenaren zain gaude oraindik.

(15) ADMINISTRAZIO KONTSEILUARI BURUZKO INFORMAZIOA-

2022ko ekitaldian ez da Administrazio Kontseiluarentzako ordainsaririk bideratu, ezta kreditu, pensio edo bizitza-aseguruei dagokien konpromisorik ere.

Administratzaileek eurek edo beraiekin lotutako beste pertsona batzuek egindako jarduerengatik, administratzaileak ez daude Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 228. artikulutik 231.enera xedatutako interes-gatazka egoeraren batean. Gobernu korporatibo hoberako 31/2014 Legeak, abenduaren 3koak, aldatu du aurretik aipatutako legea.

Sozietatearen Goi Zuzendaritza bat dator Administrazio Organoarekin.

(16) INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA-

Sozietateak ez du ingurumenarekiko eragina txikiagotzeko eta ingurumena babestu eta hobetzeko aktibo ez-korrontean bilduta dagoen aktiborik; eta ekitaldian ez du jaso diru-laguntzarik, ezta gasturik egin ere, ingurumena babestu eta hobetzeko helburuz.

Sozietateak ez du ingurumen-jardunen ondoriozko gastuak estaltzeko hornidurarik egin, ingurumena babestu eta hobetzeari lotutako pasiborik ez zaiola eskatu behar uste baitu. Halaber, ez du uste horri lotutako kontingentziarik izan behar duenik.

(17) BEROTEGI EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASAK ISURTZEKO ESKUBIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA-

Sozietateak ez du berotegi-efektuko gasak igortzeko eskubiderik.

(18) HORNITZAILEEK EGINDAKO ORDAINKETA GERORAPENEI BURUZKO INFORMAZIOA-

Merkataritza-eragiketetan hornitzaileei ordaintzeko atzerapenekin lotutako informazioa honako hau da:

	2022	2021
Hornitzaileei ordainketen batzbesteko epea	Egunak	Egunak
	4	14



(19) ONDORENGO GERTAKARIAK-

Administratzaileek ez dute inolazko gertakaririk sumatu 2022ko abenduaren 31 itxiera datatik Urteko Kontuetan nabarmen eragina izan dezakeena.

Memoria honek 23 orrialde ditu (hau barne), eta Administrazio Kontseiluak formulatu du 2023ko martxoaren 27an egin duen bileran.

Administrazio Kontseilua

Eneko Goia Laso Jn.
Presidentea

Martin Ibabe Eceiza Jn.
Bokal

Iñaki Gurrutxaga Armendáriz Jn.
Bokal

Miguel Ángel Díez Bustos Jn.
Bokal

Maria Jesús Idoeta Madariaga And.
Bokal

Ricardo Burutarán Ferre Jn.
Bokal

Reyes Carrere Zabala And.
Bokal

Duñike Aguirrezabalaga Ugarte And.
Bokal

Mikel Lezama Zubeldía Jn.
Bokal



Anoeta Kiroldegia S.A.

ANOETA KIROLDEGIA – CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA, SA

2022ko ABENDUAREN 31n

AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION KUDEAKETA TXOSTENA

(1) SOZIETATEAREN EGOERA ETA NEGOZIOAREN BILAKAERA

*** EGUNGO EGOERA**

Sozietatearen galdu-irabazien kontuak berrogeitambost mila hirurehun eta hogeita hamazazpi (55.337) euroko galerak ditu. Bertan, ibilgetuko amortizazioen zenbatekoa milioi bat seiehun eta berrogeita sei mila seiehun eta hogeitazortzi euro (1.646.628) da, eta ekitaldiko emaitzara intsuldatutako kapitaleko diru-laguntzena hirurehun laurogeita hamahiru mila ehun eta laurogeita bederatzi euro (393.189) da.

Ekitaldian Anoeta Kiroldegia S.Aren jarduerak Anoetako Kirolgunearen kudeaketa izan du jomugan.

*** NEGOZIOAREN BILAKAERA**

Sozietatearen egungo egoera abiapuntutzat hartuta (aurreko atalean aztertu da), nabarmendu beharra dago Zuzendaritzaren ustez egoerak bilakaera positiboa izango duela etorkizunean; izan ere, gero eta negozio-bolumen handiagoa bilatzen du, batez ere Anoetako Estadioa futbolaz kanpoko jardueretan erabiltzeko aukera bultzatuta.

(2) EKITALDIA ITXI ONDOREN IZANDAKO GERTAERA GARRANTZITSUAK

Administratzaileek ez dute inolazko gertakaririk sumatu 2022ko abenduaren 31 itxiera datatik Urteko Kontuetan nabarmen eragina izan dezakeena.

(3) IKERKETAREN ETA GARAPENAREN ARLOKO JARDUERAK

Sozietateak ez du inbertsiorik egin arlo honetan.

(4) AKZIO PROPIOAK EROSTEA

Ekitaldian, Sozietateak ez du inoiz ere beraren akziorik eskuratu edo erosi.



Kudeaketa Txosten honek 2 orrialde ditu, eta Administrazio Kontseiluak formulatu du 2023ko martxoaren 27an egin duen bileran.

Administrazio Kontseilua

Eneko Goia Laso Jn.
Presidentea

Martin Ibañe Eceiza Jn.
Bokala

Iñaki Gurrutxaga Armendáriz Jn.
Bokala

Miguel Ángel Díez Bustos Jn.
Bokala

Maria Jesús Idoeta Madariaga And.
Bokala

Ricardo Burutaran Ferre Jn.
Bokala

Reyes Carrere Zabala And.
Bokala

Duñe Aguirrezabalaga Ugarte And.
Bokala

Mikel Lezama Zubeldia Jn.
Bokala

Anoeta Kiroldedia S.A.


Anoeta pasealekua, 1 - Tel. - 943481875 - anoeta_kiroldedia@donostia.eus - www.donostia.eus
20014 Donostia / San Sebastián

2022KO URTEAREN KONTUETAKO INGURUMEN INFORMAZIOARI BURUZKO EZEZKO ADIERAZPENA

SOZIETATEAREN IDENTIFIKAZIOA: ANOETA KIROLDEGIA-CIUDAD DEPORTIVA DE ANOETA,
SA IFZ: A20210423

Behean sinatzen dutenek, Sozietatearen administratzaileak diren aldetik, aditzera ematen dute urteko kontu hauei dagokien Sozietatearen kontabilitatean ez dagoela barne hartu beharreko ingurumen-arloko kontu-sailik, betiere Kontabilitate Plan Orokorren hirugarren zatiko 5. puntuko "4. Urteko kontu laburtuak" lantze-arauari jarraiki (1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa).


Administrazio Kontseilua



Eneko Goia Laso Jn.
Presidentea



Martin Ibañe Eceiza Jn.
Bokal



Iñaki Gurrutxaga Armendáriz Jn.
Bokal



Miguel Ángel Díez Bustos Jn.
Bokal



Maria Jesús Idoeta Madariaga And.
Bokal



Ricardo Burutaran Ferre Jn.
Bokal



Reyes Carrere Zabala And.
Bokal



Duñike Aguirrezabalaga Ugarte And.
Bokal

Mikel Lezama Zubeldia Jn.
Bokal

